

**Konpromiso sendoa segurtasunarekin eta aurrezpena bere bezeroentzat**

**EROSKI-K PREZIOA JAITSI DIE  
HELDUENTZAKO ETA HAURRENTZAKO  
MASKARA EZ-BERRERABILGARRI GUZTIEI**

- **Helduentzako eta haurrentzako erabili eta botatzeko maskara higienikoek 30 zentimo balio dute orain, eta erabili eta botatzeko kirurgikoek (haurrenak barne), 50 zentimo**
- **50 unitateko kutxetan datoz, edo hamar unitateko poltsetan**
- **EROSKI Espainiako lehen banatzailea izan da produktu hori saltzen**

**Elorrio, 2020ko urriaren 26a.**- [EROSKI](#)k prezioa jaitsi die helduentzako eta haurrentzako maskara ez-berrerabilgarri guztiei, eta beste pauso bat eman du segurtasunaren aldeko konpromiso sendoan, kontsumitzaileei gaur egungo egoera zail honetan aurrezten lagunduta.

Helduentzako eta haurrentzako erabili eta botatzeko maskara higienikoek 30 zentimo balio dute, eta erabili eta botatzeko kirurgikoek (horiek ere helduenak nahiz haurrenak) 50 zentimo. 50 unitateko kutxetan datoz, edo 10 unitateko poltsetan. Maskarez gainera, EROSKI era askotako beste produktu batzuk saltzen ditu, hala nola gel hidroalkoholikoak (eskari handieneko beste produktuetako bat), alkohol sanitarioa, toallatxoak, lurrunaren kontrako espraia eta maskarak eramateko eta maskarei eusteko ontziak.

EROSKI apirilean hasi zen produktu hori saltzen, eta Espainiako lehenbiziko banatzailea izan da horretan.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)